

UDALEKO TELEFONOAK BERRIZTU DIRENEAN KENDUTAKOAK DOAN EMATEKO BALDINTZAK

1.- Deialdiaren helburua

Deialdi honen helburua da udalak telefono sistema aldatu duenean eta berriekin egokitu duenean, kendu dituenak doan ematea.

2.- Izaera eta baldintzak

Emango diren telefonoen ezaugarriak:

Telefono	kopurua
Panasonic KX-TS880ES telefono analogikoak:	8
Siemens Optipoint 500 Digital:	7
Gigaset Inalambrico A220:	1
Gigaset DX 800 RDSI e IP o Linean analogica:	1

(Ikus eranskina)

3- Pertsona edo entitate eskatzaileak

Eskaera aurkeztu ahal izango dute irabazi asmorik gabekoak izanda Bergaran egoitza duten pertsona juridikoek edo kultur edo kirol elkarteek, herri-taldeek edo ongintzako elkarteek ere (ikastetxeak ere onartuko dira).

Adinez nagusia den eta jarduteko gaitasun osoa duen pertsona batek sinatu beharko du eskaera, horretarako prestatu den orria beteta eta baldintza-orri hauek jasotzen dituzten betebeharrak guztiak ezagutzen dituztela eta betetzeko prest daudela adieraziz.

Eskatzailea Bergarako Udalarekiko betebeharretan egunean egon beharko da.

Bergaran erroldatutako pertsona fisikoek ere eskaera aurkeztu ahalko dute.

4- Eskaerak

Interesa duten pertsonak edo taldeek eskaera aurkeztu beharko dute, derrigor, plegu honi eranstean zaion inprimakia erabilia (F0169B).

Eskaerarekin batera, honako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte:

- Eskatzailearen identifikazio-agiria (IFZ, NAN, AIZ –Atzerritarren Identifikazio Zenbakia–, pasaporte).
- Elkartearen edo pertsona juridikoaren estatutuak edo irabazi asmorik ez duela egiaztatzen duen beste edozein dokumentu edo **erantzukizunpeko adierazpena**.
- Interesa duen pertsonaren ordezkartzan beste pertsona batek egiten badu eskaera, ordezkartza-inprimakia (F0136), behar bezala beteta eta sinatuta, bertan zehazten den dokumentazioarekin batera.

Eskaera aurkezterakoan ulertuko da plegu honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

5- Eskerak aurkezteko lekua eta epea

Eskerak aurkeztu beharko dira Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean –udaletxeko B@Z bulegoan bertaratuta, San Martin Agirre plaza, 1ean– edo telematikoki –udalaren web-orriko “Tramiteak” ataletik–, baina betiere 2022eko martxoaren 11ra arteko epean (martxoaren 11a barne).

Ezinbestekoa izango da telefono-zenbaki bat eta helbide elektronikoa bat ematea.

6. Adjudikazioa egiteko prozedura

Behin eskerak aurkezteko epea amaituta, udalak egiaztatuko du eskatzaileak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duela eta baldintzak betetzen dituela. Halaber, ofizioz egiaztatuko du:

- Pertsona fisikoak udalerrian errolatuta daudela.
- Eskera egin dutenak egunean daudela Bergarako Udalarekiko betebeharreran.

2022ko martxoaren 15ean web-orrian argitaratuko da onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda, eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira 2022ko martxoaren 17eko 10:00ak arte.

Erreklamazioak aztertu ondoren, zozketan parte hartzeko onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da 2022eko martxoaren 18ko 14:00etatik aurrera.

Zozketa ekitaldi publikoan egingo da, udaletxean, 2022eko martxoaren 21ean, 9:00etan.

Zozketaren emaitza kontuan hartuta banatuko dira telefonoak, banaketarako hurrenkera zehaztuko du zozketaren emaitzak, lehenbizi irabazi asmorik gabeko pertsona edo entitate juridikoen artean eta bakoitzak gehienez ere 2na telefono jaso ahalko ditu. Horretarako eskaera orrian 1etaik 5era lehentasuna adieraziko du (1 gutxien eta 5 gehien).

Adjudikatu gabe gelditu diren telefonoak pertsona fisikoaren artean zozketatuko dira, kasu honetan bana adjudikatuko delarik.

Adjudikazio-hartzaileei emaitzaren berri emango zaie e-mail bat bidalita, bakoitzak emandako korreo elektronikora. Bertan jakinaraziko zaie zein telefono adjudikatu zaien eta hori erretiratzeko epea.

Oharra: Zozketa bidez jasoko diren telefono hauek ezingo dira inolaz ere saldu edo prezioaren truke inorenganatu. Interesekoak ez direnak udalari bueltatuko zaizkio.

Jakinarazpena jaso izanaren agiriak, deialdi honetara aurkeztutako eskaerarekin eta plegu honekin batera, kontratu-izaera izango du.

ERANSKINA / ANEXO



**PANASONIC KX-TS880ES
TELEFONO ANALOGIKOAK**

8 telefono



SIEMENS OPTIPOINT 500 DIGITAL

7 telefono



GIGASET INALAMBRICO A220

1 telefono



GIGASET DX 800 RDSI E IP O LINEAN ANALOGICA

1 telefono